

Jaun oharagarri eta beneragarri, agur!

Salletar bat nauzu. Anaia Nikolas Alzola-ren eta Iñaki Olabeaga-ren adiskide on. Probintzialaren laguntzaile lanetan nago. Tarteka-marteka euskal lanetan ere saiatzen naiz. Oraingo honetan, lantxo hau prestatzen ari naiz: euskaraz, Salleko Joan Batistari eginiko Goratzarreak (kantikak, olertiak...) bildu eta argitaratu nahi ditut gure Barrutiako "UNANIMES" aldizkarian.

Lantxo hori prestatzerakoan, galdera batzu, argitasun eske, egitera natorkizu. Zihur nago astia aurkitzen baduzu, beso zabalez zure jakituriaren argibideak emango dizkidazula.

Nik dakidanez, euskaraz goratzarre hauek egin dira Salleko Joan Batistaren omenez:

1) "Yoannes Batista Sala Dohatsuari", Anaia Innocentius-en "Joannes Batista Dohatsuaren bizia"n argitaratua: 1891, 181-182 horr.

2) "Gloria zuri, Juan La Salle", Anaia Julio-Joseph-ek musikatua (Zarautz-en, 1905).

3) "San Joannes-Batichtha Salharen Kantika", Zalduby-k konposatua: RIEV-en (1908, 416-417 horr.) eta "Misionetako eta erretretako Kantikak" liburuxkan (Baionan, 1932, 173 horr.) argitaratua.

4) "Jaunaren mirabe, argienetako": ez dakit noiz eta nork egin den.

5) Joan Baxurko olerkariak eginiko olerkia: NORA? aldizkarian 1956.ko urrian argitaratua.

6) "Galbidetan", 1958.n Iratzeder-ek konposatua.

7) "Salleko Aita San Juan Bautista", Nemesio Etxaniz-ek 1951.n konposatua, Erruperta Iruarizaga-k musikatua.

8) "Salleko Joan Batistari Goratzarre", Anaia Iñaki Olabeaga-k konposatua: 1970.n lau horriko paper batetan Donostian inprimatua.

Hona, bada, hemen egiten dizkizudan galderak:

1) "Yoannes Batista Sala Dohatsuari" kantika, Anaia Innocentius-ena zala beste batena ote den. Berak idatzirik liburuan dago, baino ez dakit garbi berea den zala ez.

2) Zer nolako baliotasuna ikusten diozun kantika honi.

3) Beste nonbaiten argitaratua ote dago?

4) ZALDUBY-ren "San Joannes-Batichtha Salharen Kantika"ri buruz:

a) Noiz konposatu ote zuen kantika hau? Zertarako? Norentzat? Nork eskatua?

b) Frerak, nola eta non ezagutu zituen? Innocentius-ekin, Juvénal-ekin, harremanak izan ote zituen? Beste batzuekin?

- d) Zer nolako baliotasuna ikusten diozu kantika honi.
- e) RIEV-en eta Kantika liburuan argitaratua dago. Non gehiago?
- f) Non ote dago Zalduby-k berak eskuz idatziriko kantika hau?

Beste arazo batetaz ere argibide batzu eskatu nahi nizuke. Aspalditik asmo berezi bat dut, eta hau da: Euskaraz eta euskal kultura arloan Salletarrek idatzi dituzten lan guztien zerrenda eta pausoka artxibo bat prestatu nahi dut, besterik ez balitz, fotokopia bide dela. Lan hori egiteko Anaia Nikolas Alzola oso baliotsua da, eta berarekin harremanetan nago.

Gure Innocentius eta JuvénaI-en inguru-mariko garaia inbestigatu duzue, zuri ere argibide batzu eskatu nahi dizut. Konkretuki,

- 1) Innocentius-ek eginiko liburuen artean, bi bakarrik aurkitzen ditut gure liburutegietan: bata, "Joannes Batista Dohatsuaren Bizia", "Lehenagoco eskualdunak zer ziren", bestea. Beste guztiak:
 - Framazonak
 - Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan
 - Framazonak, bigarren edicionea, eta Frantziako hirur Errepubliken istorioa laburzki
 - Frantziako bigarren eta hirugarren Errepublikaren ichtorio bitchia.
 - Sakelako liburuchka edo giristino guzientzat on den esku liburu ttipia.

ez ditut inon aurkitzen. Ifarraldeko edo Hegoaldeko liburutegietan, non aurki daitezke?

- 2) Jean HIRIART-URRUTY-ren artikuluen liburuen Aintzin-solasazuk egina da. Argibide baliotsuak aurkitu ditut Innocentius-i buruz, "Eskualduna" kazetari buruz, garai hartako uneari buruz. 26.gn horrian, hau diozu: "Idazlariak ziren: ...bi fraile (JuvénaI eta Innocentius)..."

- a) Non aurki dezaket garai hartako "Eskualduna" kazeta?
- b) Innocentius eta JuvénaI-en artikulua, izenpeturik ahal daude? Honela ager ez baziren, nola jakin berenak diren hala ez? Besterik ez bada, ARNAUD POCHELOU-k Etcheverry zuzendariari idatziriko letrak baliotsuak ahal dira artikulua haien berri jakiteko? Non aurkitu letra horiek?
- d) Zure Aintzin-solasa irakurri arte, ez nenkien JuvénaI Anaiak kazetari bezala ere jokatu zuenik. "Eskualduna"-n bakarrik ahal daude bere lanak?
- e) Harritzekoa baldin bada ere, eta penagarria, gure Liburutegietan (Freren liburutegietan, halegia) ez da JuvénaI-en VOCABULAIRE TRILINGUE-ren alerik aurkitzen. Adinezko Anaiak diotenez, ba omen ziren garai batean... Nongo liburutegietan aurki dezaket liburu hori?
- f) Ba ote dago publikaturik edo nolahi Innocentius-en eta JuvénaI-en argazkiren bat? Ez batena eta ez bestena ez dut inoiz ezagutu.
- g) Innocentius-en eta JuvénaI-en esku-izkriburen bat ezagutzen eta kontserbatzen ahal da? Non?

Lasa, Martin

3.gna

Hainbeste galdera ikustean, aspergarri agertzen natzaizulakoan nago. Barka ezaidazu, halere, ~~xxxx~~ ene amak bularra ematean euskararen ganako eman zidan maitasunak eta atxikimenduak bultzatzen nau-eta.

Zure erantzunaren zai nadukazu. Aurretik, har ezazula nire esker on beroa.

Anaia Martin Lasa-k

Anaia Martin Lasa
Probintzial-Etxea
Aptadoa. 851
DONOSTIA/SAN SEBASTIAN (GIPUZKOA)